

Literatura

Udaran gabardina beltzekin

1999ko uztailarekin hil zen Jose Antonio Loidi, euskal polizia-nobelaren aita. Hamar urte joan dira eta, urteurrena gogoan, *Hamabost egun Urgainen* liburuaz geroztik generoak euskaraz eman duena ikertu dugu. Ez dugu nahi adina hiltzaile aurkitu, dena esan behar bada. Detektibeak ere, gutxi aukeran. Baina merezi du haiekin peskizan ibiltzeak. Gezurra ematen badu ere, uda baita gabardinadun istorioak irakurtzeko sasoirik onena.

GORKA BEREZIARTUA

BOTIKARIO batek kometitu zuen krimena. Aurreneko euskal polizia-nobela eskribitzea, alegia. Eta ez pentsa, sortu zuen azantza; baina ez txarrera, bestelako krimenekin gertatzen den bezala: “*Amabost egun Urgain'en* agertu orduko arrakasta handia izan zuen —zioen
G o t z o n

Garatek 1998an *Jakin* aldizkarian argitaratutako artikulu batean—. Ongi oroitzen naiz zein gogarakoa izan genuen eleberri hura. Loiolan nengoen ni orduan, eta euskaltzale talde bat ginen. Guztiok irakurri genuen eleberri atera berria (...) Harritu-
xeak gelditu ginen. Euskaraz polizia eleberria!
Euskal literaturan
urrats handia



egina zen”. Ez zen urrats txikiagoa Jose Antonio Loidik emandakoa: 30 urte bete arte ez zuen euskara landu. Tenorea iritsi zenean ordea, hartu zituen Azkueren *Morfologia*, Altuberen *Erderismos*, gramatika liburu zenbait... Eta trebatu bazen, han hasi zitzaizun Georges Simenonen nobelak euskarara itzultzen.

Baina horrekin ere aski ez. 1954an gaude eta Euskaltzaindiak sariketa antolatu du, euskaraz idatzitako eleberrientzat. Irabazlea Yon Etxaideren *Joanak joan* izango da, baina Loidik aurkeztutako lanak (*Hamabost egun Urgainen* gaurko grafiaz) hirugarren saria eskuratuta zeresan franko emango du. Eta azkenean, hurrengo urtean ikusiko du argia Martin Garaidi detektibearen istorioak. Urgainera joan da, krimen zahar bat argitzera. Egurmendi, herriko seme aberatsa bera, hil egin da eta ehortzi egin behar dute. Hobian gorpu berriarentzat lekua egiten hasi direlarik, ehorzleak deskubritu du 20 urte lehenago lurperatutako emakume baten buruan bala baten arrastoa dagoela. Eta emakumea Egurmendi zaharraren semearekin ezkondua izaki. Sukarren ondorioz hila omen. Ikerketak bi aste

emango dizkio Garaidiri, eta ustekabeko bideetatik eramango du.

Loidiren nobela bakarra izango da, baina kontuan hartuta hamarkada bereko beste liburu batzuekin batera etorriko dela –aipatutako Etxaiderena, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*, Jon Miranderen *Haur besoetakoa*...– argi antzean ikusten dute gaurko betaurrekoek zerbait aldatzen ari zela, zailtasunak zailtasun, euskal letren panoraman. Egia baldin bada idazleek irakurri nahiko lituzketen liburuak idazten dituztela, begi-bistakoa da 1950eko hamarkadako idazleek ordura artekoen aldean oso gustu diferenteak zituztela.

Mundu osoan genero irakurrienetakoa izaki, zer gertatzen da hemen, hain nobela beltz eta poliziako gutxi argitaratzeko?

Loidi hartatik nobela hauek




Ez zen antzekorik argitaratu zazpi urte pasa ziren arte. Mariano Izetaren *Dirua galgarri* nobelak dauka “euskarazko bigarren polizia-eleberria” abizena edukitzeko ohorea. Bere garaian Auspoak argitaratua, zaila da ediziorik aurkitzen gaur egun, baina Klasikoen Gordailuan (<http://klasikoak.armiarma.com>) osorik dago. 1960-1970eko urteetako uztatxoaren lehen alea izan zen. Atzetik etorri ziren Txomin Peillen *Gauetz ibiltzen dana* (1967)

Beltzetik ba al du euskarak?

Jurgi kapitainak ezin izan zion ezetz eman proposamenari. Urteak zeramatzan lanik hartu gabe, baina hau gutziatsua zen oso bera bezalako literaturzale batentzat. Bezeroa ezezaguna zuen, emakumezko baten ahots lakarra zen kontratatatu zuenaz zekien bakarra, baina Jon Garai, Haitz Zumeta eta Jon Bidarten detektibe agentzian eman zioten Jurgi kapitainaren berri eta hori aski zen enkargua onartzeko, asko zor zien *Izurri berria* eta *Alaba* (Gotzon Garate) nobelen protagonistak zirenei.

Aferak ez zirudien munta handikoa, lan gutxiko ikerketa, hori bai, ofizioko bat zelatatu behar zuen, Amaia Ezpeldoi (*Bakean utzi arte*, *Bizi nizano munduan*, *Amorezko pena baño*, *Entre les loups cruels*, *Jalgi hadi plazara*) detektibe ezaguna zertan ari zen argitu

behar zuen Jurgik. Amaia topatzea ezin errazago gertatu zitzaion, ezaguna baitzen Amaia mugaldeko ostatu edota kafetegiak laket zitzaizkiola, asteartero arratsalde osoa ematen zuen Behobia inguruko kafetegi batean. Kapitaina kafetegian zen Amaia heldu zenerako, Ezpeldoi zuzen joan zen ispilu ondoko mahaira, bertan eseri, zigarreta bat bildu eta poltsatik bi liburu eta kaiera gorri bat atera zituen. *Tobacco days* (Anjel Lertxundi) eta *Kearen truke* (Aritz Gorrotxategi) utzi zituen mahai gainean. Jurgik ez zuen bere burua gehiegi nabarmendu behar izan hori ikusteko, ispiluak, besteak beste, mahai gainean zegoenaren isla ematen baitzion. Hiru ordu eman zituen Amaiak liburuak leitzen, tarteka oharrak hartzen zituen eta zigarretak bata bestean segidan biltzen.



eta Xabier Gereñoren *Hiltzaile baten bila* (1975); eta Gotzon Garate, noski: *Esku leuna* (1978) eta *Goizuetako ezkongaiak* (1979) dira, beste lan askoren artean, elgoi-bartarrak generoari zion estimuaren erakusgarri. Bide batez, Garaterena da euskaraz gaiari buruz dagoen lan teoriko ezagunena: *Atzerriko eta Euskal Herriko Polizia Eleberria* (2000).

Baina ia-ia kazetaria bera bihurtu behar izan da detektibe, molde honetan idatzitako euskarazko liburuak aurkitzeko. 1980ko hamarkadatik aurrera ugarituko dira, egia da, baina gaur egun oraindik, sobe-ran baino faltan dira. Eta bitxia da eskasia hori, mundu osoan genero irakurrienetakoa baita aspaldiko urteetan –ikus, beste-la, azken aldian Stieg Larsson-en trilogiak jo duen kolpea–. Zer gertatzen da hemen, hain nobela beltz eta poliziako gutxi argitaratzeko?

Harkaitz Canok eman diezaguke erantzunaren parte bat. UEUK 2005ean antolatu zuen ikastaro bat, “Euskal Gatazka Euskal Literaturan” gai hartuta, eta lasartearrak *Mina eta artifizioa* hitzaldia eskaini zuen. Han kontatu zituen *Pasaia Blues* (1999) nobela beltza idaztean izan zituen zailtasun batzuk.



Azken urteetan mundu anglosaxoitik kanpoko nobela beltzak hasi dira gailentzen. Europa iparraldea eta Italia dira puntu beroenetakoak

Traba horietatik ondorio zenbait: “Dauzkagun istorioekin nobela poliziako sinesgarriak ez egitea gure talentu faltaren errua dela, lehen-lehenik. Bigarrenik, irakurlearen eta idazlearen arteko konbentzio kontratuak garbi ez izatearena. Nik idatziz paratzen badut *CIA* eta *Asuntos internos* eta *la cosa nostra* eta *Bloody Sunday*, horrek mila oihartzun ekartzen ditu literatura irakurlearen burura (...) Ordea, nik esaten badut Ertzaintza, oihartzunak ez dira nobela beltze-koak, Tolosako Boinas Elosegui-neko txapel gorrienak baizik”.

Nobela beltza mundu globalizatuan

Argitu ezin den kasua ote, beraz, Euskal Herrian girotutako polizi-nobelarena? Itzalpera kondena-tuta ote, euskaraz mintzo diren detektibeak? Urrunegi joatea da hori. Bate-tik, generoaren klasiko asko euskaraz badaudelako, Igela argitaletxearen Sail Bel-tzari esker. Eta, bestetik, etengabe garatzen ari den nobela mota izaki, aukera berriak zabaldu zaizkiolako XXI. mendearen has-tapenetan.

Prozesu luzea izan da: hasieran Edgar Allan Poek *Morgue kaleko hilketak*-ekin detektibe bihurtu zuen nobelaren gidari;



Bigarren asteartean ere, eguerdirako ailegatu zen Jurgi mugako kafetegira, eta mahaia aukeratu zuen bi baldintza aintzat harturik, enkuadrerik hoberena behar zuen Amaiaren mahaian zegoena ispilutik ikus zezan, eta aldi berean ahalik eta ezkutuen behar zuen pasa Ezpeldoiren aurrean. Detektibe ande-rea berandutu zen, baina horrek ez zion eragozpen berezirik sortu Jurgiri, zer gerta ere Igela argitaletxeko *Ihesa* (Jim Thompson) eraman baitzuen. Amaiak aurreko astearteko erri-toa errepikatu zuen, hori bai, zorrotik *Odolbildua* (Josu Landa) *Katebegi galdua* (Jon Alonso) eta *Non dago Stalin?* (Xabier Montoia) atera zituen.


Erraz ondorioztatu zezakeen nobelaren inguruko lanen bat ari zela egiten, baina horrek ez zuen Jurgi asebetetzen, nobela bel-tza ote zen Ezpeldoiren ikerketaren xedea? Poliziakoak piztu ote zion jakin-mina? Nonbait nobela generoen arteko mugarriak aski ongi zedarriturik zeuden eta agian euskal literaturak ez du nobela beltzetik nahiko lanik genero eta azpigeno guztiak eli-

katzeko, baina euskaraz nobela beltza irakurtzerik badugula jakin badakigu Igelari esker.

Hirugarren asteartea ailegatu zen, eta Amaia iristeko ordua gora behera, aurrekoetan jasotakoa gertatu zen. Zorro-tik, *Arotzaren eskuak* (Alberto Ladrón), *Rock'n'roll* (Aingeru Epaltza), *Mendeko borroka* (Fertxu Izquierdo) atera zituen Amaiak, bigarren zigarreta bildu zuenerako, gizon bat sartu zen kafetegian eta zuzenean detektibe anderearen mahaira hurbildu zen. Artean gizona zutik zegoelarik ispiluan ikusi zuen Jurgik gizonaren aurpegia, ez zen dudarik, Damian Arru-ti (*Eulien bazka* eta *Mutuaren hitzak*) zen Amaiaren aurrez aurre zegoena. Besapean zeraman liburu hartu eta Amaiari eman zion, Jurgik ez zuen izenburu osoa irakurtzerik izan, lehen hitza bakarrik: *Dirua*.



WIKIPEDIA



Eskuineko argazkian Gotzon Garate. Hainbat polizia-eleberri idatzi zituen, *Esku leuna* eta *Goizuetako ezkongaiak*, besteak beste. Berea da tankera honetako liburuei buruz euskaraz idatzi den saio teoriko ezagunena ere. Ezkerrean berriz, Henning Mankell eta Roberto Saviano, azken urteetan argitaratu diren nobela beltz arrakastatsuenen egileak.

eta eredu zabaldu egin zen, Wilkie Collins, Arthur Conan Doyle, Agatha Christie eta enparauak lekuko. Hiltzailea deskubritzea zen garrantzitsuena lehen polizia-eleberri haietan, eta giroa aristokratiko samarra zen: saloi handiak, maiordomoak. Nobela beltzaren agerpenarekin aldatzen da hori. “D” hirukoitzaren klubekoak dira detektibe berriak: Dibortziatuak, Depresiboak, Dipsomaniakoak. Giroak ere, halakoak: AEBetako hiri handien ipularrak, prostituzioa, droga. Ez du inporta nork hil duen nor: munduaren lakarra azaleratzea da idazle beltzen xedea. Raymond Chandler, Dashiell Hammett edo Jim Thompsonen nobelak dira.

Azken urteetan ordea, mundu anglosaxoitik kanpoko nobela beltzak hasi dira gailentzen. Europa iparraldean da puntu beroetako bat. Henning Mankell-ek darma maillot horia, baina hain ezagunak izan ez arren, Jens Martin Eriksen, Hakan Ne-

sser eta Arni Thorarinsson lehiakide onak dira. Eta zer esan Italiaz? Roberto Saviano-ren *Gomorra* nobelak irakurle asko erakarri ditu Carlo Lucarelliren edo Massimo Carlottoaren lanetara. Japonian aspaldian garatu dute euren *noir* partikularra *yakuza* generoarekin; Moskutik Parisera, Istanbuletik Bogotara, nobela beltza dagoeneko ez da usamerikarren jabetza pribatua.

Erreferente horiek zabaltzen diren neurrian, pentsatzekoa da generoaren konbentzioak ere anitzagoak izango direla; eta aukera berriak zabalduko zaizkiola euskal idazleari bere inguruko errealtateari egokitutako polizia-nobelak egiteko. Europako hiri handietan gertatzen diren istorioak hurbilago daude, beharbada, gure auzoetako bizitzetatik, AEBetan girotutakoak baino. Osagaiekin asmatzea da kontua. Baina norbaitek asmatu beharko du. Krimena, kasu honetan, oraindik ere generoko eleberri gutxi izatea baita. ■